

## GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y  
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO  
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA  
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y  
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL  
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Yolanda Barcinak Nafarroako lehendakari kargua hartu du gaur

*Azpimarratu duenez, bere agintaldiko Gobernuak "etorkizunera begiratuko du, elkarrizketen bidez eta adostasunetara iritsiz jardungo da eta Foru Erkidegoko aniztasuna errespetatuko du"*

Viernes, 01 de julio de 2011

Yolanda Barcina Angulok, gaur, uztailak 1, Nafarroako Foru Erkidegoko Lehendakariaren kargua hartu du Nafarroako Parlamentuaren atarian egin den ekitaldi batean. Ekitaldiaren buru izan dira José Blanco Sustapen ministroa, Estatuko Gobernuo Presidentea ordezkatzeko, eta Alberto catalán Parlamentuko presidentea. Miguel Sanz Sesma kargua utziko duen lehendakaria ere han izan da; guztiek eman dizkiete hari eskerrak Foru Erkidegoan hamabost urtez egin duen jardunagatik.



Yolanda Barcina kargua hartzen, Alberto Catalán Parlamentuko Presidente aurrean duela

Ekitaldia 12:00ak aldera hasi da eta Espainiako eta Nafarroako ereserkiak entzun dituzte. Han izan dira, baita ere, Pedro Sanz Errioxako presidentea, Nafarroako agintari nagusiak eta Foru Erkidegoko gizarteko, ekonomiako eta hezkuntzako ordezkariak. Jarraian, Pablo Díez Lago Parlamentuko letradu eta idazkari nagusiak Yolanda Barcina Angulo Nafarroako Foru Erkidegoko lehendakari izendatzeko Errege Dekretua irakurri du. Barcinak honako zin hau esan ondoren hartu du kargua: "Zin egiten dut Nafarroako Foru Araubidea errespetatu, mantendu eta hobetu egingo dudala, Konstituzioari eta Legeei men egingo diedala eta Nafarroako Foru Erkidegoko lehendakari karguaren betebeharrak leial beteko ditudala".

Alberto Catalán Parlamentuko presidentea hasi du ekitaldia, eta UPN eta PSNren arteko koalizio gobernuaren ondorioz alderdi ezberdinen arteko hitzarmenaren balioa nabarmendu du eta "batasuna eta aniztasuna ez direla baztertzailak" esan du.

### Elkarrizketa, adostasuna eta Nafarroako aniztasunarekiko errespetua

Barcina Lehendakariak, "gaur, hemen, zuen aurrean, Nafarroako erantzukizun instituzional gorenarenean neure gain hartu ahal izateko [konfiantza eta babesaren eskaini didatenei esker ona eta aintzatespena](#)" adierazi

[ondoren](#), azpimarratu du "Foru Erkidegoan garai politiko berri bat irekiko dela, nagusitasuna duten bi alderdiren arteko adostasunetik sortu den gobernuan oinarrituta". Horren haritik, nabarmendu du "gure historia demokratiko osoan zehar Unión del Pueblo Navarro eta Nafarroako Alderdi Sozialistaren artean izan den lankidetzak tradizionalak oraingoan irmotasun are handiagoa izango duela, konpromiso sendoagoa, partekatutako erabaki gehiago egongo direla, izan ere, zailtasun ekonomiko handiko garaian gaude eta irtenbideak bilatzeko ausartagoak izan behar dugu".

Adostasunari dagokionez, Lehendakariak azpimarratu du "adostasuna gure Erkidegotik kanpo aintzatetsi dutela langabezia eta itxaropenik eza pairatzen duten biztanleen herrialdeetako alderdi eta lider politikoen arteko etengabeko liskar eta tira-biretarako konponbide gisa".

Gobernu berriaren haritik, Barcinak zera esan esan du: "Neure gain hartuko dut biztanleen eta agintarien arteko distantzia laburtu beharra dagoen garai politiko berrirako ateak irekiko dituen gobernu bideratzeko betebeharra. Soiltasuna eta zorrotasuna oinarri hartuta egingo dugu ibilbidea. Gobernu lana umiltasunez eta naturaltasunez burutzen duten arduradunek osatu behar dute, funtsezkoa ez den guztia bazterten dakiten eta baliabide publikoak aurrezteko ahalegina egin eta adorea duten pertsonek. Zorrotasuna eta soiltasuna, barnean eta jokamoldean".

Yolanda Barcinak hitz batzuk eskaini dizkio sozietate zibilari, eta horri buruz esan du "Nafarroaren ondare nagusia dela, instituzio, talde, elkarte, hirietako erakunde anitzetan modu apartean egituratuta dagoena. Horiek guztiek, egunero, pertsona guztien bizitza hobetzeko eta Foru Erkidegoko gizartearen, ekonomiaren eta kulturaren aurrerapena eragiteko esku hartzen dute. Horregatik, Lehendakariak nabarmendu du "gizarte ondare aberats horren parean egoteko, orain ibilbidea hasiko duen Gobernuak etorkizunera begiratuko duela, elkarrizketen bidez eta adostasunetara iritsiz jardungo dela eta beti gure Erkidegoaren ezaugarri izan den gizarte, kultura eta politika aniztasuna errespetatuko dituela".

Barcinak, Foru Erkidegoaren buru den lehenengo emakumea izanik, esan du "ziur nago baldintza hori pizgarria izan beharko dela orain hasiko dudan lanean".

### **Blancok Nafarroak krisiaren aurrean izan duen indarra azpimarratu du**

José Blanco Sustapen ministroak Yolanda Barcina inbestidura dela-eta zoriondu du, eta ohorea dela adierazi du Estatuko Gobernuaren presidentea, José Luis Rodríguez Zapatero, ordezkatzeko ekitaldira etortzea. Inbestidurari dagokionez, ministroak azpimarratu du gaurkoaren moduko ekitaldiek "hogeita hamar urteko demokraziaren indarra" islatzen dutela, eta etengabe hobetu behar direla indartzeko. Testuinguru ekonomikoari buruz, Blancok adierazi du "egunero zailtasunei aurre egiteko eta herritarren ongizatea hobetzeko politikari ausartak behar direla".

Horren haritik, hain justu ere, ministroak Nafarroak krisiaren aurrean izan duen indarra azpimarratu du eta "aukera handiak dituen lurraldea" dela esan du. Horrez gain, instituzioetako lankidetzaren garrantzia nabarmendu du gaur egungo egoerari "zorrotasunez eta eraginkortasunez, jarduera ekonomikoa dinamizatuz eta erantzukizuna eta instituzioekiko leialtasuna oinarri hartuta lan eginez" aurre egiteko.

### **Sinatu dute gobernu berriko departamentuen egituraren dekretua**

Yolanda Barcina Angulo Nafarroako Lehendakariak Foru Gobernu berriko departamentuen egitura



Alberto Catalán, José Blanco eta Yolanda Barcina lehendakari kargua hartzeko ekitaldian

ezartzen duen dekretua sinatu du gaur goizean.

Zortzi departamentuen izenak eta lehentasunaren arabera hurrenkera:

- Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentua
- Ekonomia eta Ogasun Departamentua
- Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentua
- Hezkuntza Departamentua
- Osasun Departamentua
- Gizarte Politika, berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentua
- Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentua
- Sustapen eta Etxebizitza Departamentua

Aurreikusi denaren arabera, Nafarroako Aldizkari Ofizialak dekretua argitaratuko du aparteko zenbaki batean.

### Galería de fotos



Barcina Lehendakaria, mintzaldian



Blanco ministroa eman duen mintzaldian



Sanz, Blanco, Barcina eta Catalán, Lehendakariaren inbestiduraren ondoren